



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalnegoitza.araba.eus/experta/validacionDoc?entidad=BARRUNDIA>

Z0144708b03309093a407e80c0080f1e4

Ayuntamiento de BARRUNDIA  
(ÁLAVA)



BARRUNDIAKO Udala  
(ARABA)

## ARABARRAK KIROL TALDEA ERAKUNDEAREN ETA BARRUNDIAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA

### BILDURIK

Alde batetik, Igor Medina Isasa, Barrundiako Udalaren Alkate-Udalburua izanik, beronen izenean eta ordezkari gisa, horretarako behar bezala ahalmenak dagoelarik.

Eta bestetik, Ygor Martinez de Albeniz jauna, Arabarrak Kirol Taldea erakundearen lehendakaria izanik (G01037076), horretarako behar bezala ahalmenak dagoelarik.

Alde biak hitzarmen hau egiteko eskumena eta gaitasuna aitortzen diote elkarri.

### AURREKARIAK

**LEHENA.-** Arabarrak Kirol Taldea erakundea sortu izan zen Lautada eskualdean txirrindularitza sustatzeko eta praktikatzeko.

**BIGARRENA.-** Toki Jaurpidearen Oinarriak Arauzkatzeko Legearen 25.2.1). artikulua arabera, udalerriak, beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legegian ezarritako moduan, gai hauetako eskumenak beteko ditu:

.....  
1) Kirolaren eta kirol instalakuntzen sustatzea eta aisialdia betetzea.  
.....

Halaber, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak bere 17.1.19) artikulua arabera, aurreneko Lege horretan eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren esparruan, udalerriek, honako esparru material hauetan erabili ahal izango dituzte eskumen propioak:

.....  
19) Kirola eta kirol-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kirol-ekipamenduak kudeatzea.  
.....

**HIRUGARRENA.-** Martxoaren 30eko 2/2023 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoko jardura fisikoaren eta kirolaren 2. artikulua arabera, jardura fisikoa eta kirola interes publikoko gizarte-jarduerak dira, eta pertsonen prestakuntza eta garapen integratzailea, haien

|                                                                   |                   |                  |
|-------------------------------------------------------------------|-------------------|------------------|
| Agiariaren sinatzailea: / Documento firmado por:                  | Kargua / Cargo:   | Data / Fecha:    |
| IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA) | Alkatea / Alcalde | 09/08/2024 15:34 |



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalnegotia.araba.eus/experta/validacionDoc?entidad=BARRUNDIA>

Z0144708b03309093a407e80c0080f1e4

Ayuntamiento de BARRUNDIA  
(ÁLAVA)



BARRUNDIAKO Udala  
(ARABA)

osasuna eta bizi-kalitatea mantentzen edo hobetzen eta norbanakoaren eta gizartearen ongizatean laguntzen dute.

Pertsona guztiek jarduera fisikoa eta kirola askatasunez eta borondatez egiteko duten eskubidea aitortzen da, eta botere publikoek jarduera horren eraginkortasunerako bitarteko egokiak ezartzeko betebeharra izango dute.

Euskal botere publikoek, bakoitzak bere eskumenen esparruan, jarduera fisikorako eta kirolerako eskubidearen eraginkortasunera bideratutako politika hartuko dute, honako printzipio gidari hauen arabera:

- Programa bereziak onartzea eta gauzatzea, jarduera fisikoa eta kirola gizarte-sektore guztietara zabaltzeko, batez ere egoera ahulenean daudenetara.

- Pertsona guztiak jarduera fisikoan eta kirolean baldintza berdinetan edo ekitatez sartzea eragozten duten oztopo guztiak kentzea.

- Edozein motatako desgaitasuna duten herritarren artean jarduera fisikoa eta kirola sustatzea.

- Emakumeak kirol-jardueran erabat integratzen lagunduko duten baldintzak sustatzea, maila guztietan eta diskriminaziorik gabe.

- Jarduera fisikoa eta kirola aprobetxatzea euskararen erabilera sustatzeko tresna gisa.

- Jarduera fisikoa eta kirola bultzatzea, Euskal Autonomia Erkidegoan garapen ekonomiko eta sozialaren eragile gisa.

- Jarduera fisikorako eta kirolerako natura-ingurunearen aprobetxamendu egokia sustatzea, ingurumena babestearekin bateragarri eginez.

- Kirol-instalazioen eta jarduera fisikoaren sare ezin hobea planifikatzea eta sustatzea.

- Kirol-asoziazionismoa antolatzea eta sustatzea, bai eta kirolaren antolaketa-egitura pribatuak aitortzea eta babestea ere.

**LAUGARRENA.-** Martxoaren 30eko 2/2023 Legearen, Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera fisikoarenaren eta kirolarenaren 29. artikulua xedatutakoaren arabera, kirol-klubak izango dira irabazi-asmorik gabeko eta nortasun juridikoa duten elkarte pribatuak, pertsona fisikoek edo juridikoek osatutakoak, baldin eta kirol-modalitate bat edo batzuk sustatzeko edo praktikatzeko xedea badute, lehiaketa ofizialetan parte hartu edo ez.

**BOSGARRENA.-** Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendariaren 1991eko irailaren 17ko Erabakiaren bidez, Arabarrak Kirol Taldea Euskadiko Kirol erakundearen Erregistroan inskribatu zuen CD-0001940 zenbakiarekin.

|                                                                   |                   |                  |
|-------------------------------------------------------------------|-------------------|------------------|
| Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:                   | Kargua / Cargo:   | Data / Fecha:    |
| IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA) | Alkatea / Alcalde | 09/08/2024 15:34 |



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegoliza.araba.eus/barrundiak/aldaconDoc?entidad=BARRUNDIA>  
Y0144708b0150e02ca407e8386080a2eU



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegoliza.araba.eus/experta/validacionDoc?entidad=BARRUNDIA>  
Z0144708b03309093a407e80c0080f1e4

Ayuntamiento de BARRUNDIA  
(ÁLAVA)



BARRUNDIAKO Udala  
(ARABA)

**SEIGARRENA.-** 1955eko ekainaren 17an onartutako Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 23.1 artikulua arabera, Udal Korporazioek entitateei, erakundeei edota norbanakoei diru-laguntzak luzatu ahal izango dizkie betiere toki eskudantzei atxikitutako zerbitzuak edo jarduerak osatzen badituzte.

Horrela, alde bientzat onuragarri izanik txirrindularitzaren sustatzea eta kirol praktika, betiere norbanakoen osozko garapena eta formakuntza bultzatzen dutelarik, eta osasuna hobetu, bizitza kalitatea eta ongizatea gehitu eta gizarte funtzioa betetzen duten kulturaren oihartzun eta interes orokorreko bezala, alde biek zera hitzartzen dute Barrundiako Udaleko 2024ko Aurrekontu Orokoretan zehaztutako diru laguntza izenduna bideratzeko:

**HITZARKINAK**

**LEHENA.-** Arabarrak Kirol Taldeak Barrundiako Udalaren Gizonezko XII saria, Arabako txapelketaren barruan, 2024ko irailaren 07an antolatuko du (kadete mailatan).

Aurten irteera eta helmuga Ozaeta herrian izango dira.

Froga horrek oihartzun handia du Arabako Lurralde Historikoan, garratzitsuenetakoa izanik.

**BIGARRENA.-** Diru laguntza kitatzeko Arabarrak Kirol Taldeak bere jarduerak garatzean eduki dituen gastuen zuriak egin beharko du, horretarako gastuen zehaztea eta ordainagiriak aurkeztu beharko ditu.

**HIRUGARRENA.-** Barrundiako Udalak ARABARRAK KIROI TALDEAK erakundeak aurrez aipatutako lan-ildoak udalerrian gauza zitzan egindako ahaleginak suposatzen dituen gastuei aurre egiteko 3.800,00 eurotako diru laguntza zehaztu du (2024ko Aurrekontu Orokoretako 341.481.002 partida).

**LAUGARRENA.-** ARABARRAK KIROI Elkarteak gizarte segurantzaren ordainketak eguneratuta dituela frogatuko du, halaber, ogasunean.

Aurrenekoa ikusita, alde biek adostasuna frogatuz, hitzarmen hau sinatzen dute, idazpuruan adierazitako leku eta egunean.

ALKATEA

ARABARRAK KIROI TALDEA

Ygor Martinez de Albeniz  
  
Arabarrak Kirol Taldea  
CIF: B01057076  
Fueros 19, Salvatierra-Agurain  
01200 Álava  
arabarrak.agurain@gmail.com

|                                                                   |                   |                  |
|-------------------------------------------------------------------|-------------------|------------------|
| Agiariaren sinatzailea: / Documento firmado por:                  | Kargua / Cargo:   | Data / Fecha:    |
| IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA) | Alkatea / Alcalde | 09/08/2024 15:34 |